



## 2017ko ekaina

### **A AUKERA**

- 1. Akzio, Kapital Soziala, Holding, Estrategia, Finantzaketa-iturri. Akzioak eta partaidetzak: antzekotasuna eta diferentziak 2 +**
- 2. FIFO 2 +**
- 3. Balantzetxoa 2 +**
- 4. Heltze Aroa 2.5 +**
- 5. Testa 1.5 +**

### **B AUKERA**

- 1. Errentagarritasun Ataria, Produktibitatea 2.5 +**
- 2. BEG eta Pay Back 2 +**
- 3. Balantzea 4: Ibilgetua, Altxortegia, Likidezia, Finantza Autonomia, Zorpetze osoa +**
- 4. Testua: Kooperatiba, Enpresa, Merkatu-kuota. Enpresa-hazkundera 1.5 +**

## A AUKERA

### A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderei:

#### FERRARI % 15 GORA BURTSA-ESTREINALDIAN

Italiako Ferrari automobil-marka asteazken honetan hasi zen kotizatzen Wall Street-eko burtsan, eta haren akzioen balioak % 15,3 egin zuen gora. Oinarrizko prezioa 52 dolarrean zegoen ezarrita (46 euro gaur egungo kanbio-tasan).

RACE sinboloarekin kotizatzen du Ferraririk. Burtsa-estreinaldiaren aurretik, haren sozietate nagusi den Fiat Chrysler Automobile-k 17,17 milioi akzioen salmenta-eskaintza publiko bat egin zuen. Akzio kopuru hori Ferrariren kapital sozialaren % 10 da.

Burtsan kotizatzen hasita, luxuzko kirol-automobilen erreferentziazko ekoizleak, Ferrari NVK, utzi egingo dio FCAREN eskuetan bakarrik egoteari, nahiz eta FCAk akzioen % 90 bere esku izango dituen.

Eskaintza publikoaren ostean geldituko zaion % 80ko partaidetza bere akzionistei transferitzeko asmoa du holdingak.

Abiaduraren italiar ikonoak daraman estrategia-aldaketaren helburua FCAk duen zorra murriztea da, hala "finantzaketa-iturrietara erraz iristeko" eta inbertitzaileentzat erakargarriago gertatzeko, batez ere Estatu Batuetan, non marka honek merkatu-kuota "handi eta garrantzitsuenetako" bat duen.

Dena dela, eragiketa ez da arriskurik gabea Enzo Ferrari Alfa Romeo umil baten pilotuak sortutako enpresarentzat. Konpainiak ohartarazi du jaulki berri duen akzioen eskaintza publikoaren aurretik ez dela inoiz egon burtsa-merkatuaren mende eta ezin duela aurreikusi zenbaterainokoa izango den inbertitzaileen interesa.

Galderak:

1. Defini itzazu letra lodiz nabarmenduriko terminoak.
2. Azaldu itzazu zertan diren berdinak eta zertan desberdinak akzioak eta partaidetzak.

### A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Enpresa batek diru-zorroak saltzen ditu, eta mugimendu hauek erregistratu ditu apirilean biltegian:

- 04/02: Hasierako izakinak: 3.000 unitate, 4 €/u.
- 04/09: Erosketak Marko hornitzaileari: 2.000 unitate, 3 €/u.
- 04/10: Erosketak Lira hornitzaileari: 3.000 unitate, 3,2 €/u.
- 04/13: Salmentak Florin bezeroari: 5.500 unitate 3,8 €/u.
- 04/20: Salmentak Florin bezeroari: 2.500 unitate 3,9 €/u.
- 04/30: Erosketak Lira hornitzaileari: 4.000 unitate, guztira 14.000 € ordainduta.

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu apirileko biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) metodoak erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa.

**A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.**

Enpresa baten ondarea elementu hauek osatzen dute:

- 1. Kapital soziala.....???????
- 2. Eraikinak.....50.000 €
- 3. Jesapenak.....8.000 €
- 4. Izakinak.....12.000 €
- 5. Ogasun publiko hartzekoduna.....6.000 €
- 6. Bezeroak.....9.000 €
- 7. Altzariak .....20.000 €
- 8. Kutxa.....1.000 €
- 9. Erreserbak.....7.000 €
- 10. Bankuak.....4.000 €
- 11. Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak.....40.000 €
- 12. Garraio-elementuak.....5.000 €
- 13. Hornitzaileak.....10.000 €

Aurreko datuak kontuan hartuta,

- a) Egin ezazu enpresaren egoera-balantzea.
- b) Kalkula ezazu errotazio-funtsa (maniobra-fondoa), eta interpreta ezazu grafiko batez lagunduta.

**A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2.5 puntu**

Enpresa batek, iaz, bere produktua egiteko, biltegian 1.000.000 €-ko lehengaien izakinak eduki zituen batez beste (magnitute hori erosketa-prezioaren arabera balioetsirik dago).

Erositako lehengaien bolumena 12.000.000 € izan zen. Salmenta-bolumena, produktuen salmenta-prezioaren arabera balioetsirik, 40.000.000 € izan zen eta, batez beste, bezeroek enpresarekin 1.000.000 €-ko zorra izan zuten. Enpresa horri dagozkion beste zenbait datu, guztiak ere kostuaren arabera balioetsirik, hauek dira:

- Fabrikazio-bidean dauden produktuen batez besteko balioa: 1.000.000 €.
- Produktu amaituen batez besteko izakinak biltegian: 1.000.000 €.
- Urteko ekoizpenaren balioa: 20.000.000 €.
- Urteko salmentak: 36.000.000 €.

Kalkula ezazu enpresaren batez besteko heltze-aro finantzarioa, kontuan harturik hornitzaileen batez besteko saldoa 2.000.000 € izan zela eta erositako lehengai guztiak kontsumitu zirela. Azaldu ezazu emaitza.

**A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1.5 puntu.**

Erantzun test motako 5 galderari. Hiru erantzun daude aukeran, baina erantzun zuzen bat baino ez dago. Guztiei zuzen erantzunez gero, 1,5 puntu lortuko dira. Erantzun zuzen bakoitzari 0,3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko ez da punturik kenduko, eta galderarik erantzun gabe utziz gero ere ez da punturik kenduko. Idatzi erantzun zuzena erantzunen orrian.

- 1. Zerga bat progresiboa da, baldin eta hau betetzen bada:
  - a. Zerga-oinarririk txikiena duena da gehien ordaintzen duena.
  - b. Kuota zerga-oinarriarekiko alderantziz proportzionala da.
  - c. Zerga-tasa zerga-oinarriaren noranzko berean aldatzen da.

- 2. Enpresa bat non kokatuko den baldintzatu dezakeen faktore bat hau da:
  - a. Lurzoruaren (orubearen) kostua.
  - b. Enpresaren izaera juridikoa.
  - c. Enpresako bazkideen bizilekua.
- 3. Zenbait inbertsio-proiektu aukeran izango bagenu, BEG irizpidea aplikatuz (BEG, balio erantsi garbia), hau aukeratuko genuke:
  - a. BEG handiena ematen duen proiektua.
  - b. BEG txikiena ematen duen proiektua.
  - c. BEGa zero izatea dakarren proiektua.
- 4. AK SA enpresak inbertsio bat egin nahi du. Hasierako diru-jartzea 75.000 € da, eta kaxa-fluxu garbi hauek izango ditu: 10.000 €, lehenengo urtean; 20.000 €, bigarrenean; 45.000 €, hirugarrenean; eta 25.000 €, laugarrenean. Zein da inbertsio horren berreskuratze-epea?
  - a. 4 urte
  - b. 3 urte
  - c. 2 urte
- 5. Langabezia-tasa % 24 izateak hau esan nahi du:
  - a. Langabeen kopurua landunen kopurua baino % 24 txikiagoa dela.
  - b. Herrialdeko biztanleen % 24k ez duela lanik egiten.
  - c. 100 pertsona aktibotik 24k ez duela lanik eta ez duela lanik aurkitzen.

## B AUKERA

### B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2.5 puntu.

Elhuyar argitaletxeak, maiatzean, 32.000 kirol-aldizkari ekoitzi ditu, eta 104.000 €-ko diru-sarrerak lortu ditu aldizkari horiek salduta. Kopuru hori ekoitzi eta saltzeak, 30.000 €-ko kostu finkoak izateaz gain, 40.000 €-ko kostu aldakor totalak ekarri dizkio. Aurreko datu horiek guztiak kontuan hartuta, erantzun galdera hauei:

- Kalkulatu ekoizpen-prozesu horren errentagarritasun-ataria, eta azaldu haren esanahia
- Zein da 32.000 aldizkari horiek saltzearen emaitza?
- Irudikatu grafikoki aurreko bi egoerak.
- Demagun editorial horrek 10 langile dituela maiatzean eta langile bakoitzaren lan egunak 20 izan direla, 7 lan ordukoak bakoitza. Zein izan da enpresa horretako hilabete horretako lanaren produktibitatea? Eta produktibitate osoa edo globala? Azaldu emaitzak.
- Demagun kirol-aldizkariaren merkatuan, maiatzean, 160.000 ale saldu direla. Zer merkatu-kuota lortu du argitaletxeak hilabete horretan? Azaldu emaitza.

### B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

UMOTI SA enpresak lantegi berri bat eraiki nahi du, eta A eta B inbertsio-proiektuen artean aukeratu behar du:

A proiektuak ezaugarri hauek ditu:

Hasierako kostua	25.500 €
Urteko diru-sarrerak	23.200 €
Urteko ordainketak	10.800 €
Hondar-balioa	3.800 €
Iraupena	4 urte

B proiektuak honako hauek:

Hasierako kostua	45.500 €
Urteko kostu finkoak	12.000 €
Unitate bakoitzeko salmenta-prezioa	51 €
Unitate bakoitzeko kostu aldakorrak	26 €
Iraupena	3 urte
1. urteko salmentak	1.400 unitate

2. urteko salmentak	1.100 unitate
3. urteko salmentak	1.200 unitate

Inflazio-tasa metatua % 3 baldin bada eta enpresak, inflaziorik gabe, eskatzen duen gutxieneko errendimendua % 6 baldin bada, kalkula itzazu hauek:

- 1. Zein da inbertsiorik egokiena balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera? Arrazoitu erantzuna.
- 2. Eta inbertsio bakoitzaren berreskuratze-epearen (Pay Back) irizpidea erabiliz, zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
- 3. Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?

### B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu

2016ko abenduaren 31n, bainujantziak egin eta saltzen dituen IGERIKETA SA enpresaren ondarea elementu hauek osatzen dute:

- 1. Enpresak bere jarduerarako duen lokalak 100.000 €
- 2. Bulegoan bertan ordainketa txikiak egiteko txanpon eta billeteak 150 €
- 3. Bainujantziak josteko makinek 15.000 €
- 4. Bulegoko altzariak 7.000 €
- 5. Bulegoan dituen ordenagailuek (haietatik 500 € programa informatikoei dagozkie) 4.000 €
- 6. Biltegiaren gordetako lehengaiak 5.000 €
- 7. Makinen saltzaileari 2 urteko epean ordaintzeko zorra 3.000 €
- 8. Bainujantziak garraiatzeko furgonetak 13.000 €
- 9. Kutxa Banki 4 urteko epean ordaindu beharreko mailegua 120.000 €
- 10. Biltegiaren salmentarako prest dauden bainujantziak 3.000 €
- 11. Kutxa Banken kontu korronteko saldoa 2.000 €
- 12. Lehengaiak saldu zizkion saltzaileari zor dizkio 2.000 €
- 13. Ogasun Publikoarekin, BEZa dela eta, zorra 1.000 €
- 14. Gizarte Segurantzarekin zorra 1.500 €
- 15. Denda batek zor dizkio Igeriketa SAri bainujantzien erosketagatik 3.000 €
- 16. Ibilgetuaren amortizazio metatua 4.000 €
- 17. Bezeroei kobratu behar dizkien merkataritza-efektuen balioa 1.850 €
- 18. Enpresaren kapital soziala ???

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:
  - Ibilgetua.
  - Altxortegia.
  - Likidezia.
  - Finantza-autonomia.
  - Zorpetze osoa

### 4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderei:

Igogailuen sektorean, munduko handienekin lehiatzen ari da azken urteetan Orona euskal KOOPERATIBA. Lehia horretan indartzeko, beste urrats bat egin du, eta bi ENPRESA bereganatu ditu, European duen MERKATU-KUOTA indartzeko: EST Ascenseurs erosi du Frantzian, eta Heis 1 Group Norvegian.

Galderak:

- a) Defini itzazu letra lodiz nabarmenduriko terminoak.
- b) Enpresa-hazkunderako zer modu ezagutzen dituzu? Modu horietako zein erabili du Oronak, testu horren arabera?



# ENPRESA DBHO2



## A AUKERA (A bukatuta, B aukera egiten!!!)

### A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderei:

#### FERRARI % 15 GORA BURTSA-ESTREINALDIAN

Italiako Ferrari automobil-marka asteazken honetan hasi zen kotizatzen Wall Street-eko burtsan, eta haren akzioen balioak % 15,3 egin zuen gora. Oinarrizko prezioa 52 dolarrean zegoen ezarrita (46 euro gaur egungo kanbio-tasan).

RACE sinboloarekin kotizatzen du Ferrarrik. Burtza-estreinaldiaren aurretik, haren sozietate nagusi den Fiat Chrysler Automobile-k 17,17 milioi akzioen salmenta-eskaintza publiko bat egin zuen. Akzio kopuru hori Ferrariren kapital sozialaren % 10 da.

Burtsan kotizatzen hasita, luxuzko kirol-automobilen erreferentziatzko ekoizleak, Ferrari NVk, utzi egingo dio FCAREN eskuetan bakarrik egoteari, nahiz eta FCAk akzioen % 90 bere esku izango dituen.

Eskaintza publikoaren ostean geldituko zaion % 80ko partaidetza bere akzionistei transferitzeko asmoa du holdingak.

Abiaduraren italiar ikonoak daraman estrategia-aldaketaren helburua FCAk duen zorra murriztea da, hala "finantzaketa-iturrietara erraz iristeko" eta inbertitzaileentzat erakargarriago gertatzeko, batez ere Estatu Batuetan, non marka honek merkatu-kuota "handi eta garrantzitsuenetako" bat duen.

Dena dela, eragiketa ez da arriskurik gabea Enzo Ferrari Alfa Romeo umil baten pilotuak sortutako enpresarentzat. Konpainiak ohartarazi du jaulki berri duen akzioen eskaintza publikoaren aurretik ez dela inoiz egon burtsa-merkatuaren mende eta ezin duela aurreikusi zenbaterainokoa izango den inbertitzaileen interesa.

Galderak:

1. Defini itzazu letra lodiz nabarmenduriko terminoak.
2. Azaldu itzazu zertan diren berdinak eta zertan desberdinak akzioak eta partaidetzak.

#### ERANTZUNAK

- Akzio:

- Akzioa [sozietate](#) batean [kapitala](#) banatuta dagoen zatietako bakoitza da, eta zati bakoitzaren jabegoa ziurtatzen duen agiria.
  - Enpresen kapital soziala hainbat partetan banatzen da, eta parteei akzioak esaten zaie<sup>11</sup>. Kapital soziala, berriz, [bazkideek](#) (jabeek) konpainia sortzeko jartzen duten diru guztiari deritza. Kapital soziala akzioetan banatua egoten da, eta posible izaten da handitzea nahiz murriztea. [Enpresa](#) bateko tituluak edo balioak erosten dituenak (akzioduna) eroste hutsarekin bilakatzen da enpresako zuzeneko jabe, hau da, berdin dio inbertsore txikia den edo zenbat akzioren jabe den.
  - [Sozietate anonimoetan](#), berriz, akzioa izaten da jabego-titulua. Akzioak ondasun higigarriak izaten dira horietan; diru-kopuru bat ematen dute aditzera, bakoitzak adierazten duen diru-kopurua, alegia.
  - Kapital Soziala:
    - [Merkataritza zuzenbidean](#) eta [kontabilitatean](#), **kapital soziala** [bazkideek merkataritza-sozietate](#) edo beste elkarte-mota baterako egin dituzten diru eta ondasunen ekarpenen multzoa da. Elkartearen jarduera ekonomikoan kapitalari gehitutako [mozkinak kapital bereki edo propioa](#) osatzen dute.
  - Holding:
    - **Holding** beste [enpresen akzio](#) sailen jabe den elkarte da. Beste enpresa edo enpresen jarduerak ekonomikoki kontrolatzeko, enpresaren akzio guztiak edo gehienak erosi behar ditu. Partaidetzak lortzen diren enpresak sektore berekoak edo askotakoak izan daitezke; *holding*-ek enpresetako partaideen bitartez lortzen duten kontrolari esker, inbertsio kopuru txikiaren bidez, zenbait konpainiaren kontrol bateratua lor dezakete.
  - Estrategia:
    - Helburuak lortzeko erak aztertzen ditu. Adibidez, erakunde batek zenbait helburu lortu nahi badu, ez da nahikoa lanari gogor ekitea, baita estrategia ondo aukeratzea ere. Estrategia ez da ideia estatikoa; prozesua da, bideak bilatzeko prozesua.
  - Finantzaketa-iturri:
    - [enpresa](#) edo beste erakunde batek finantza-baliabideak (funtsean, [dirua](#)) eskuratzeko prozesu eta ekintza da. Enpresak bazkideen ekarpenez, [akzioak](#) jaulkiz eta kanpoko finantzazioz ([kredituak](#) eta [maileguak](#) jasoz eta [jesapenak](#) jaulkiz) nahiz bere jardueran sortutako baliabideekin egindako [autofinantzaketaz](#) ([amortizazioak](#) eta [hornidurak](#) eta erreserbak, esaterako). Zorrak ordaintzeko gerorapenak eta geroko kobrantzen aurrerapenak ere finantzazio-iturri dira.
  - Akzioak eta partaidetzak: antzekotasuna eta diferentziak:
    - Partizipazioa: Inbertsio mota da eta enpresaren mozkinak banatzen dira. Partizipazio mota bat akzioa da, baina ez dauka derrigorrez hori izan beharrik, ez baitu kapitalaren parte izan beharrik. Bonok, obligazioak eta abar partizipazio era ezberdinak dira.
-

**A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu**

Enpresa batek diru-zorroak saltzen ditu, eta mugimendu hauek erregistratu ditu apirilean biltegian:

- 04/02: Hasierako izakinak: 3.000 unitate, 4 €/u.
- 04/09: Erosketak Marko hornitzaileari: 2.000 unitate, 3 €/u.
- 04/10: Erosketak Lira hornitzaileari: 3.000 unitate, 3,2 €/u.
- 04/13: Salmentak Florin bezeroari: 5.500 unitate 3,8 €/u.
- 04/20: Salmentak Florin bezeroari: 2.500 unitate 3,9 €/u.
- 04/30: Erosketak Lira hornitzaileari: 4.000 unitate, guztira 14.000 € ordainduta.

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu apirilko biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) metodoak erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa.

**ERANTZUNA**

								FIFO			
		Sarrera			Irteera			Izak			
Data	Kontzep	k	p	Balioa	k	p	Balioa	k	p	Balioa	
		04-02	Hasierako Izak							3.000	4
04-09	Erosketa	2.000	3	6.000				3.000	4	12.000	
								2.000	3	6.000	
								-----			
								5.000	18.000		
04-10	Erosketa	3.000	3.2	9.600				3.000	4	12.000	
								2.000	3	6.000	
								3.000	3.2	9.600	
								-----			
								8000	27.600		
04-13	Salmenta				5.500			2.500	3.2	8.000	
					• 3.000	4	12.000				
					• 2.000	3	6.000				
					• 500	3.2	1.600				
04-20	Salmenta				2.500	3.2	8.000	0	0		
04-30	Erosketa	4.000	?	14.000				4.000	3.5	14.000	

$$x = \frac{14.000}{4.000} = 3.5$$

								BPH			
		Sarrera			Irteera			Izak			
Data	Kontzep	k	p	Bal	k	p	Balioa	k	p	Balioa	
		04-02	Hasierako Izak							3.000	4
04-09	Erosketa	2.000	3	6.000				3.000	4	12.000	
								2.000	3	6.000	
								5.000	*1=3.6	18.000	
04-10	Erosketa	3.000	3.2	9.600		-	-	5.000	3.6	18.000	
								3.000	3.2	9.600	
								8.000	*2=3.45	27.600	
04-13	Salmenta				5.500	3.45	118.975	2.500	3.45	8.625	
04-20	Salmenta				2.500	3.45	8.625	0	0		
04-30	Erosketa	4.000	?	14.000				4.000	3.5	14.000	

$$x = \frac{14.000}{4.000} = 3.5$$

$$x_1 = \frac{18.000}{5.000} = 3.6$$

$$x_2 = \frac{27.600}{8.000} = 3.45$$

**A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu**

Enpresa baten ondarea elementu hauek osatzen dute:

- 1. Kapital soziala.....???????
- 2. Eraikinak.....50.000 €
- 3. Jesapenak.....8.000 €
- 4. Izakinak.....12.000 €
- 5. Ogasun publiko hartzekoduna.....6.000 €
- 6. Bezeroak.....9.000 €
- 7. Altzariak .....20.000 €
- 8. Kutxa.....1.000 €
- 9. Erreserbak.....7.000 €
- 10. Bankuak.....4.000 €
- 11. Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak.....40.000 €
- 12. Garraio-elementuak.....5.000 €
- 13. Hornitzaileak.....10.000 €

Aurreko datuak kontuan hartuta,

- a) Egin ezazu enpresaren egoera-balantzea.
- b) Kalkula ezazu errotazio-funtsa (maniobra-fondoa), eta interpreta ezazu grafiko batez lagunduta.


**ERANTZUNAK**

<b>AKTIBOA</b>		<b>ONDARE GARBIA eta PASIBOA</b>	
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>		<b>ONDARE GARBIA</b>	
IBILGETU UKIEZINA		FONDO PROPIOAK	
IBILGETU MATERIALA		KAPITAL SOZIALA Bazkideen ekarpenak	<b>30.000</b>
Eraikina	50.000	ERRESERBAK	7.000
Altzariak	20.000	EKITALDIKO EMAITZA	
Garraioa	5.000		<b>37.000</b>
<b>ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK</b>		<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	
E/LUZ FINANTZA-INBERTSIOAK		E/eLUZ ZORRAK	
Aktibo Ez Korronte Osoa	<b>75.000</b>	Mailegua epe luze	40.000
		OG+Pasibo Ez Korronte Osoa--	<b>77.000</b>
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>PASIBO KORRONTEA</b>	
IZAKINAK		E/LAB ZORRAK	

Ispiluak	12.000	Jesapenak	8.000
<b>Izakinak</b>	<b>12.000</b>	HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINTZEKO BESTELAKO KONTUAK	
ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRAITZEKO BESTELAKO KONTUAK		Ogasuna	6.000
Bezeroak	9.000	Hornitzaileak	10.000
E/LAB FINANTZA-INBERTSIOAK		Pasibo Korrontea	<b>24.000</b>
ESKUDIRUA ETA BESTELAKO AKTIBO LIKIDO BALIOKIDEAK			
Kutza	1.000		
Bankuak	4.000		
<b>AZ</b>	<b>26.000</b>		23.000
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>101.000</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>101.000</b>

Bazkideen ekarpena = **30.000 €**

b) Maniobra-fondoa kalkulatzea, grafikoki adieraztea eta emaitza aztertzea.



$$\text{Maniobra Fondoa} = 77.000 - 75.000 = 26.000 - 24.000 = 2.000 \text{ €}$$

Enpresa ondo dabil. Bere kapital finkoek behar finkoei erantzuteko aukera ematen eta behar zirkulatuzaileetarako ere zerbait geratzen zaio. Marjina handia ez bada ere, egoera bastante egonkorra da.

**A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2.5 puntu**

Enpresa batek, iaz, bere produktua egiteko, biltegian 1.000.000 €-ko lehengaien izakinak eduki zituen batez beste (magnitute hori erosketa-prezioaren arabera balioetsirik dago).

Erositako lehengaien bolumena 12.000.000 € izan zen. Salmenta-bolumena, produktuen salmenta-prezioaren arabera balioetsirik, 40.000.000 € izan zen eta, batez beste, bezeroek enpresarekin 1.000.000 €-ko zorra izan zuten. Enpresa horri dagozkion beste zenbait datu, guztiak ere kostuaren arabera balioetsirik, hauek dira:

- Fabrikazio-bidean dauden produktuen batez besteko balioa: 1.000.000 €.
- Produktu amaituen batez besteko izakinak biltegian: 1.000.000 €.
- Urteko ekoizpenaren balioa: 20.000.000 €.
- Urteko salmentak: 36.000.000 €.

Kalkula ezazu enpresaren batez besteko heltze-aro finantzarioa, kontuan harturik hornitzaileen batez besteko saldoa 2.000.000 € izan zela eta erositako lehengai guztiak kontsumitu zirela. Azaldu ezazu emaitza.

**ERANTZUNAK**

## 1-Hornitzaileak

- Urteko biltegiko hornidura: 12.000.000 €
- Biltegian dagoenaren batez bestekoa: 1.000.000 €

## 2-Ekoizpena

- Urteko ekoizpena: 20.000.000 €
- Fabrikazio bidean dagoenaren batez bestekoa: 1.000.000 €

## 3-Salmenta

- Urteko salmenta: 40.000.000 €
- Bezeroen batez besteko zorra: 1.000.000 €

## 4-Kobrantzak

- Urteko kobrantzak: 36.000.000 €
- Biltegiko produktu amaituen batez bestekoa: 1.000.000 €

## 5-Ordainketak

- Urteko ordainketa: 12.000.000 €
- Hornitzaileekiko batez besteko zorra: 2.000.000 €

Beraz,

$$n_H = \frac{\text{Urtekoa}}{\text{Batez bestekoa}} = \frac{12.000.000}{1.000.000} = 12 \text{ aldiz}$$

$$HA_H = \frac{360}{n_H} = \frac{360}{12} = 30,42 \text{ egun biltegian}$$

$$n_E = \frac{\text{Urtekoa}}{\text{Batez bestekoa}} = \frac{20.000.000}{1.000.000} = 20 \text{ aldiz}$$

$$HA_E = \frac{360}{n_E} = \frac{360}{20} = 18,25 \text{ egun ekoizpen fasean}$$

$$n_S = \frac{\text{Urtekoa}}{\text{Batez bestekoa}} = \frac{36.000.000}{1.000.000} = 36 \text{ aldiz}$$

$$HA_S = \frac{360}{n_s} = \frac{360}{36} = 10.14 \text{ egun ekoizpen fasean}$$

$$n_K = \frac{\text{Urtekoa}}{\text{Batez bestekoa}} = \frac{40.000.000}{1.000.000} = 40 \text{ aldiz}$$

$$HA_K = \frac{360}{n_k} = \frac{360}{40} = 9.125 \text{ egun kobratu arte}$$

$$n_o = \frac{\text{Urtekoa}}{\text{Batez bestekoa}} = \frac{12.000.000}{2.000.000} = 6 \text{ aldiz}$$

$$HA_o = \frac{360}{n_o} = \frac{360}{6} = 60.83 \text{ egun kobratu arte}$$

$$HA_{EKONOMIKOA} = HA_H + HA_E + HA_S + HA_K + HA_o = 30.42 + 18.25 + 10.14 + 9.125 = 67.935 \text{ egun}$$

$$HA_{FINANTZARIOA} = HA_{EKONOMIKOA} - HA_{Aordainketa} = 67.935 - 60.83 = 7.105 \text{ egun}$$

Hau da, enpresaren ustiapeneko zikloa 67.935 egunekoa da, eta enpresak egun horietako 60.83 egun oso-osorik finantzatu behar ditu.

**A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1.5 puntu.**

Erantzun test motako 5 galderari. Hiru erantzun daude aukeran, baina erantzun zuzen bat baino ez dago. Guztiei zuzen erantzunez gero, 1,5 puntu lortuko dira. Erantzun zuzen bakoitzari 0,3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko ez da punturik kenduko, eta galderarik erantzun gabe utziz gero ere ez da punturik kenduko. Idatzi erantzun zuzena erantzunen orrian.

- 1. Zerga bat progresiboa da, baldin eta hau betetzen bada:
  - a. Zerga-oinarririk txikiena duena da gehien ordaintzen duena.
  - b. Kuota zerga-oinarriarekiko alderantziz proportzionala da.
  - c. Zerga-tasa zerga-oinarriaren noranzko berean aldatzen da.
- 2. Enpresa bat non kokatuko den baldintzatu dezakeen faktore bat hau da:
  - a. Lurzoruaren (orubearen) kostua.
  - b. Enpresaren izaera juridikoa.
  - c. Enpresako bazkideen bizilekua.
- 3. Zenbait inbertsio-proiektu aukeran izango bagenu, BEG irizpidea aplikatuz (BEG, balio erantsi garbia), hau aukeratuko genuke:
  - a. BEG handiena ematen duen proiektua.
  - b. BEG txikiena ematen duen proiektua.
  - c. BEGa zero izatea dakarren proiektua.
- 4. AK SA enpresak inbertsio bat egin nahi du. Hasierako diru-jartzea 75.000 € da, eta kaxa-fluxu garbi hauek izango ditu: 10.000 €, lehenengo urtean; 20.000 €, bigarrenean; 45.000 €, hirugarrenean; eta 25.000 €, laugarrenean. Zein da inbertsio horren berreskuratze-epea?
  - a. 4 urte
  - b. 3 urte
  - c. 2 urte
- 5. Langabezia-tasa % 24 izateak hau esan nahi du:
  - a. Langabeen kopurua landunen kopurua baino % 24 txikiagoa dela.
  - b. Herrialdeko biztanleen % 24k ez duela lanik egiten.
  - c. 100 pertsona aktibotik 24k ez duela lanik eta ez duela lanik aurkitzen.

**ERANTZUNAK**

1. C
2. A
3. A
4. B  $(-75.000+10.000+20.000+45.000 \geq 0)$
5. C  $(Lang - tasa = \%24 = \frac{Langabeak}{Biztanleria Aktiboa} \cdot 100 \rightarrow Beraz, 100 aktibotik, 24k ez du lanik$

## B AUKERA

### B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2.5 puntu.

Elhuyar argitaletxeak, maiatzean, 32.000 kirol-aldizkari ekoitzi ditu, eta 104.000 €-ko diru-sarrerak lortu ditu aldizkari horiek salduta. Kopuru hori ekoitzi eta saltzeak, 30.000 €-ko kostu finkoak izateaz gain, 40.000 €-ko kostu aldakor totalak ekarri dizkio. Aurreko datu horiek guztiak kontuan hartuta, erantzun galdera hauei:

- a) Kalkulatu ekoizpen-prozesu horren errentagarritasun-ataria, eta azaldu haren esanahia
- b) Zein da 32.000 aldizkari horiek saltzearen emaitza?
- c) Irudikatu grafikoki aurreko bi egoerak.
- d) Demagun editorial horrek 10 langile dituela maiatzean eta langile bakoitzaren lan egunak 20 izan direla, 7 lan ordukoak bakoitza. Zein izan da enpresa horretako hilabete horretako lanaren produktibitatea? Eta produktibitate osoa edo globala? Azaldu emaitzak.
- e) Demagun kirol-aldizkariaren merkatuan, maiatzean, 160.000 ale saldu direla. Zer merkatu-kuota lortu du argitaletxeak hilabete horretan? Azaldu emaitza.

### ERANTZUNAK

Ekoizpena = 32.000 aldizkari

Sarrerak = 104.000 €

KF = 30.000 €

Ka totala = 40.000 €

Beraz,  $p = \frac{104.000}{32.000} = 3.25 \text{ €}$  – *tan salduko dituzte aldizkariak*

$K_{ab} = \frac{40.000}{32.000} = 1.25 \text{ €}$  da aldizkari bakoitzaren  $K_{ab}$


#### a. Kalkulatu ekoizpen-prozesu horren errentagarritasun-ataria, eta azaldu haren esanahia

$EA = \frac{KF}{p \cdot K_{ab}} = \frac{30.000}{3.25 - 1.25} = 15.000$  aldizkari ekoiztuz gero, ez galdu eta ezta irabazi ere. Hortik gora,

$$p \cdot k = KF + K_{ab} \cdot k$$

$$3.25 \cdot 15.000 = 30.000 + 1.25 \cdot 15.000$$


$$48.750 = 48.750$$



**b. Zein da 32.000 aldizkari horiek saltzearen emaitza?**

$$EMAITZA = p \cdot k - (KF + Kab \cdot k)$$

$$3.25 \cdot 32.000 - (30.000 + 1.25 \cdot 32.000) = 104.000 - 70.000 = 34.000 \text{ € irabaziko ditu}$$

**c. Adierazpen grafikoa**

**d. Demagun editorial horrek 10 langile dituela maiatzean eta langile bakoitzaren lan egunak 20 izan direla, 7 lan ordukoak bakoitza. Zein izan da enpresa horretako hilabete horretako lanaren produktibitatea? Eta produktibitate osoa edo globala? Azaldu emaitzak.**

Langileak	Egunak	Orduak	Aldizkariak	Sarrerak	Emaitzak
10	20	7	32.000	104.000	34.000

$$P = \frac{Irteera}{Inbertitutakoa} = \frac{32.000}{10 \cdot 20 \cdot 7} = 22.86 \text{ aldizkari ekoiztu eta saldu da.}$$

Diru-sarrereri erreparatuta, berriz,

$$P = \frac{Irteera}{Inbertitutakoa} = \frac{104.000}{10 \cdot 20 \cdot 7} = 74.28 \text{ euro/orduko izan dira ekoizpen eta salmentak}$$

Eta, lortu diren emaitzei dagokienez, berriz,

$$P = \frac{Irteera}{Inbertitutakoa} = \frac{34.000}{10 \cdot 20 \cdot 7} = 24.28 \text{ euro/orduko izan da emaitza}$$

**e) Demagun kirol-aldizkarien merkatuan, maiatzean, 160.000 ale saldu direla. Zer merkatu-kuota lortu du argitaletxeak hilabete horretan? Azaldu emaitza.**

- 160.000 ale saldu da merkatuan.
- 32.000 ale saldu du Elhuyarrek

$$\text{Merkatu} - \text{kuota} = \frac{\text{Guk saldu duguna}}{\text{Merkatuan saldu dena}} \cdot 100 = \frac{32.000}{160.000} \cdot 100 = \% 20 \text{a da merkatuaritza-kuota}$$

edo

**160.000-----100**

$$32.000 \text{-----} x = \frac{32.000 \cdot 100}{160.000} = \%20$$

**B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.**

UMOTI SA enpresak lantegi berri bat eraiki nahi du, eta A eta B inbertsio-proiektuen artean aukeratu behar du:

A proiektuak ezaugarri hauek ditu:

Hasierako kostua	25.500 €
Urteko diru-sarrerak	23.200 €
Urteko ordainketak	10.800 €
Hondar-balioa	3.800 €
Iraupena	4 urte

B proiektuak honako hauek:

Hasierako kostua	45.500 €
Urteko kostu finkoak	12.000 €
Unitate bakoitzeko salmenta-prezioa	51 €
Unitate bakoitzeko kostu aldakorak	26 €
Iraupena	3 urte
1. urteko salmentak	1.400 unitate
2. urteko salmentak	1.100 unitate
3. urteko salmentak	1.200 unitate

Inflazio-tasa metatua % 3 baldin bada eta enpresak, inflaziorik gabe, eskatzen duen gutxieneko errendimendua % 6 baldin bada, kalkula itzazu hauek:

- 1. Zein da inbertsiorik egokiena balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera? Arrazoitu erantzuna.
- 2. Eta inbertsio bakoitzaren berreskuratze-epearen (Pay Back) irizpidea erabiliz, zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
- 3. Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?

**ERANTZUNAK**

A aukera

Hasierako Despoltsapena	1	2	3	4
-25.000	23.200 -10.800	23.200 -10.800	23.200 -10.800	23.200 -10.800 3.800
-25.000	12.400	12.400	12.400	16.200

B aukera

Hasierako Despoltsapena	1	2	3
-45.500	$1.400 \cdot 51$ $-(12.000 + 1.400 \cdot 26)$	$1.100 \cdot 51$ $12.000 + 1.100 \cdot 26)$	$1.200 \cdot 51$ $12.000 + 1.200 \cdot 26)$
-45.500	$71.400 - 48.400 =$ 23.000	$56.100 - 40.600 =$ 15.500	$61.200 - 43.200 =$ 18.000

$$\text{Errentagarritasuna} = i + g + i \cdot g = 0,03 + 0,06 + 0,03 \cdot 0,06 = 0,0918$$

$$BEG = -A + \frac{Q_1}{1+k} + \frac{Q_2}{(1+k)^2} + \frac{Q_3}{(1+k)^3} + \frac{Q_4}{(1+k)^4}$$

A aukera

$$BEG_A = -25.500 + \frac{12.400}{1+0,0918} + \frac{12.400}{1,0918^2} + \frac{12.400}{1,0918^3} + \frac{16.200}{1,0918^4} =$$

$$BEG_A = -25.500 + \frac{12.400}{1,0918} + \frac{12.400}{1,192} + \frac{12.400}{1,421} + \frac{16.200}{1,5513} =$$

$$BEG_A = -25.500 + 11.357,39 + 10.402,6846 + 8.726,25 + 10.442,8546$$

$$BEG_A = 15.429,179$$

B aukera

$$BEG_B = -45.500 + \frac{23.000}{1+0,0918} + \frac{15.500}{1,0918^2} + \frac{18.000}{1,0918^3} =$$

$$BEG_B = -45.500 + \frac{23.000}{1+0,0918} + \frac{15.500}{1,192} + \frac{18.000}{1,421} =$$

$$BEG_B = -45.500 + 21.066,1293 + 13.003,3557 + 12.667,1358 = BEG_B = 1.236,6208$$

BEG-en arabera, inbertsiorik egokiena A da,  $15.429,179 > 1.236,6208$  delako, gehiago irabazten delako.

Egia da, era berean, lehen inbertsioan 4 urte diral eta bigarreanean, berriz, 3, baina 3. urtekoa konparatuz ere, emaitza hobe du lehen proiektuak

Pay Back

- $A \rightarrow 12.400 + 12.400 + 12.400 > 25.500 \rightarrow 3$  urte

$25.500 - 12.400 - 12.400 = 700 \text{ €}$  falta dira 2 urte pasa ondoren

12.400 € ----12 hilabete

$700 \text{ €} \rightarrow x = \frac{700 \cdot 12}{12.400} = 0.68 \text{ hilabete} \rightarrow$  Beraz, 2 urte eta 0.68 hilabete behar dira hasierako inbertsioa berreskuratzeko.

- $B \rightarrow 23.000 + 15.500 + 18.000 > 45.500 \rightarrow 3$  urte

$45.500 - 23.000 - 15.500 = 7.000 \text{ €}$  falta dira 2 urte pasa ondoren

18.000 € ----12 hilabete

$7.000 \text{ €} \rightarrow x = \frac{7.000 \cdot 12}{18.000} = 4.6666... \text{ hilabete} \rightarrow$  Beraz, 2 urte eta 4.6666... hilabete behar dira hasierako inbertsioa berreskuratzeko.

Pay Back-aren arabera, LEHEN proiektuak aukeratu behar da AZKARRAGO BERRESKURATZEN DELAKO hasierako despoltsapena.

### c. Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?

BEG da metodo egokiena, Pay Backari hainbat ERAGOZPEN ikusten baitzaizkio:

- Ez du kontuan hartzen noizkoak diren kaxa-fluxuak. Hurrengo hauek B aukeraren BERDINAK dira:

Hasierako Despoltsapena	1	2	3
-45.500	15.500	18.000	23.000

- Berreskuratu ONDORENGO kaxa-fluxuak ere ez ditu kontuan hartzen.

Hasierako Despoltsapena	1	2	3	4
-45.500	23.000	15.500	18.000	1.000.000

3 urte ondoren irabazitako ez du kontuan hartzen.

- Moneta unitateak BATU egiten dira, homogeneousak balira bezala. Urteak pasatzen dira eta ez du inflazioa kontuan hartzen, ez du eguneratzen...

**B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu**

2016ko abenduaren 31n, bainujantziak egin eta saltzen dituen IGERIKETA SA enpresaren ondarea elementu hauek osatzen dute:

- 1. Enpresak bere jarduerarako duen lokalak 100.000 €
- 2. Bulegoan bertan ordainketa txikiak egiteko txanpon eta billeteak 150 €
- 3. Bainujantziak josteko makinek 15.000 €
- 4. Bulegoko altzariak 7.000 €
- 5. Bulegoan dituen ordenagailuek (haietatik 500 € programa informatikoei dagozkie) 4.000 €
- 6. Biltegiak gordetako lehengaiak 5.000 €
- 7. Makinen saltzaileari 2 urteko epean ordaintzeko zorra 3.000 €
- 8. Bainujantziak garraiatzeko furgonetak 13.000 €
- 9. Kutxa Banki 4 urteko epean ordaindu beharreko mailegua 120.000 €
- 10. Biltegiak salmentarako prest dauden bainujantziak 3.000 €
- 11. Kutxa Banken kontu korronteko saldoa 2.000 €
- 12. Lehengaiak saldu zizkion saltzaileari zor dizkio 2.000 €
- 13. Ogasun Publikoarekin, BEZa dela eta, zorra 1.000 €
- 14. Gizarte Segurantzarekin zorra 1.500 €
- 15. Denda batek zor dizkio Igeriketa SAri bainujantzien erosketagatik 3.000 €
- 16. Ibilgetuaren amortizazio metatua 4.000 €
- 17. Bezeroei kobratu behar dizkien merkataritza-efektuen balioa 1.850 €
- 18. Enpresaren kapital soziala ???

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:
  - Ibilgetua.
  - Altxortegia.
  - Likidezia.
  - Finantza-autonomia.
  - Zorpetze osoa


**ERANTZUNAK**

<b>AKTIBOA</b>		ONDARE GARBIA eta PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA		ONDARE GARBIA	
IBILGETU UKIEZINA		FONDO PROPIOAK	
		KAPITAL SOZIALA Bazkideen ekarpenak	<b>22.500</b>
IBILGETU MATERIALA		ERRESERBAK	
		EKITALDIKO EMAITZA	
Lokala+Lurra	100.000		<b>22.500</b>
Altzariak	7.000	PASIBO EZ-KORRONTEA	
Makinak	15.000		
Ordenagailuak	4.000	E/LUZ ZORRAK	
Furgoneta	13.000	Zorrak (2 urte)	3.000
Amortizazioa	-4.000	Mailegua (4 urte)	120.000
ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK			<b>PF 123.000</b>
E/LUZ FINANTZA-INBERTSIOAK			
	<b>AF</b>	<b>135.000</b>	
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>PASIBO KORRONTEA</b>	
IZAKINAK		E/LAB ZORRAK	
Biltegia	5.000	HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINTZEKO BESTELAKO KONTUAK	
Biltegia II	3.000	Hornitzaileak	2.000
	<b>Izakinak</b>	<b>8.000</b>	Ogasuna 1.000
ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRAITZEKO BESTELAKO KONTUAK		Gizarte Segurantzak	1.500
Eskubideak	3.000		
Eskubideak II	1.850		<b>PZ 4.500</b>
	<b>Eskubideak</b>	<b>4.850</b>	

E/LAB FINANTZA-INBERTSIOAK			
ESKUDIRUA ETA BESTELAKO AKTIBO LIKIDO BALIOKIDEAK			
Bulegoko dirua	150		
Kutxabank-KK	2.000		
<b>Erabilgarria</b>	<b>2.150</b>		
AZ	15.000		
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>150.000</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>150.000</b>

Bazkideen ekarpena = **22.500 €**

b) Maniobra-fondoa kalkulatzeko, grafikoki adieraztea eta emaitza aztertzea.



Maniobra Fondoa =  $|AZ - PZ| = |15.000 - 4.500| = 10.500 €$

Enpresa ondo dabil. Bere kapital finkoek behar finkoei erantzuteko aukera ematen eta behar zirkulatuazaleetarako ere zerbait geratzen zaio. Egoera egonkorra da.

c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:

- $Ibilgetuaren Ratioa = \frac{AF}{NK} = \frac{135.000}{22.500} = 6$

Norberaren kapitalarekin finantzatuta dagoen Higiezinaren zatia

Balio Hobezina 1 baino txikiagoa da. Ez da hori kasua, baina ez dago urruti

- $Altxortegia = \frac{Erabilgarria + Kobratzeko eskubidea}{PZ} =$

$$\frac{2.150 + 4.850}{4.500} = 1.56$$

- Altxortegiaren ratioa = Berehalako Kaudimen ratioa edo Test Azidoa.
- Enpresaren ahalmena epe laburreko zorrak kitatzeko, ordainketa etena egoera gertatzeko arriskurik gabe.
- Likidezia arazorik ez izateko, ratioaren balioak 1etik gertu egon behar du (0,8-1,2).
- Hortik behera bada, ordainketa etena gertatzeko arrisku bizia dago: Enpresak Epe laburreko baliabideekin ezingo ditu Epe laburreko zorrak ordaindu.

- Ratio hau bastante ondo atera zaio.
- $Likidezia = \frac{AZ}{PZ} = \frac{15.000}{4.500} = 3.3$   
Balio hoberenak 1,5-1,8 artean estimatzen dira... Likidezian gehiegi eta guzti du...
- $Zorpetze Osoa = \frac{PG}{NK} = \frac{127.500}{22.500} = 5.67$   
Balio hobezina 0,5 eta 1,2 artean dago.
  - 0,5-1,2 artean badago, zorpetze egokia du.
  - 0,5 baino txikiagoa bada, baliabide propioak ez direla ondo erabiltzen esan nahiko luke.
  - Zorpetze egoki batetik gora dabil...
- $Finantza autonomia = \frac{NK}{PG} = \frac{22.500}{127.500} = 0.176$   
Kanpoko baliabideekiko duen dependentsia maila adierazten du

Ez du aurten galdetzen baina galdetu ohi dute:

- $Bermearen Ratioa = \frac{Aktiboa}{PG} = \frac{150.000}{127.500} = ?$

Bermearen ratioa = Epe Luzeko Kaudimen ratioa = Porrotarekiko tarte.

1,7-2 komeni da. 1 baino txikiagoa bada, porrot arrisku handia. Ratio hau ere handiegia atera zaio...

ALTXORTEGIA ez zaio hain gaizki atera, baina LIKIDEZIAN gehiegizkoa du. ZORPETZE OSOA handia duenez, likideziarekin hobetzerik ba ote duen aztertu beharko luke...

**4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu**

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderari:

Igogailuen sektorean, munduko handienekin lehiatzen ari da azken urteetan Orona euskal **kooperatiba**. Lehia horretan indartzeko, beste urrats bat egin du, eta bi **enpresa** bereganatu ditu, Europan duen **merkatu-kuota** indartzeko: EST Ascenseurs erosi du Frantzian, eta Heis 1 Group Norvegian.

Galderak:

- a) Defini itzazu letra lodiz nabarmenduriko terminoak.
- b) Enpresa-hazkunderako zer modu ezagutzen dituzu? Modu horietako zein erabili du Oronak, testu horren arabera?

**ERANTZUNAK****a) Defini itzazu letra lodiz nabarmenduriko terminoak.****KOOPERATIBA**

Enpresaren jabeak eta kudeatzaile nagusiak langileak beraiek direnean.

- Def: Interes eta premia berdinak dituzten eta enpresa-jarduera bat egiten duten pertsona fisikoen eta juridikoen elkarte bat da kooperatiba-sozietatea. Eraitza ekonomikoak (SOBERAKIN deritzaie eta ez mozkin) bazkideei esleitzen zaizkie, funts erkideei erantzuna eman ondoren, egiten duten kooperatiba-jarduera kontuan hartuta. Kooperatibek ondare erkide bat sortzen dute, mugak daude hura eskualdatzeko eta ez dute irabazi-asmorik.
- Motak: LEHEN MAILAKO KOOPERATIBA, BIGARREN MAILAKOA edo ONDORENGO MAILA batekoa izan daiteke.
- Bazkideak
  - Lehen mailakoan, bazkideek 3 izan behar dute gutxienez, eta pertsona fisikoak izan ohi dira.
  - Bigarren mailakoan, 2 bazkide izan ohi dira, eta pertsona juridikoak diren kooperatibez osatuta daude.
  - Bazkideen alta eta baja borondatezkoa eta askea da. Sozietateak kapital-ekarpena soilik egiten duten kideak izan ditzake (pertsona fisikoak edo juridikoak). Interesak jasoko dituzte ekarpenaren truke eta ez dute sozietatearen zorraren erantzukizun pertsonalik.
- Erantzukizuna: MUGATUA. Sozietatean duten ekarpenaren zenbateko izendatura mugatzen da, benetan ordaindu edo hitzemandako ekarpenen zenbatekora. Dena den, sozietatearen estatutuetan, beste erantzukizun-mota bat ere ezar daiteke, eta MUGAGABEA izan daiteke.
- Kapitala: Gutxieneko kapitala estatutuetan ezarrita dago eta aldagarria da. Lehen mailako kooperatibetan, bazkide bakoitzaren ekarpena ezin izango da sozietatearen kapitalaren herena baino handiagoa izan. Kapitalak guztiz ordainduta egon beharko du sozietatea eratzen den unean.
- Izena: Izenaren atzetik, "Kooperatiba Sozietatea" edo S. Coop" laburdura joango da. Autonomia erkidego guztietan ez da berdina jartzen.
- Baldintza berezia: Kooperatibak lortutako soberakinen % 30, gutxienez, Nahitaezko Erreserba funtsean eta Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsean sartuko da.
- Zergak: SZ edo Sozietateen gaineko Zerga.

- Eraketa: Nortasun juridikoa eskuratzeko, kooperatibak betekizun formal hauek bete behar ditu; ERATZE-ESKRITURA eta ESTATUTUAK idatzi behar dira, eskritura notarioaren aurrean sinatu behar da, eta kooperatiben erregistroan inskribatu.
- Organoak:
  - BATZAR NAGUSIA: Bazkideen bilkura da, bai eta kideena ere, horrelakorik balu. Gaiak eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko organo gorena da.
  - KONTSEILU ERREKTOREA: Kooperatibaren gobernu-, kudeaketa-, eta ordezkaritza-organoa da. Gutxienez, 3 kide izan behar ditu (kooperatibako bazkideak) eta zuzendari bat ere izenda daiteke.
  - ERREKURTSO BATZORDEA: Bazkideei ezarritako zehapenak izapidetu eta haiei buruzko erabakiak hartzen ditu.
  - KONTU-HARTZAILEAK: Urteko kontuak ikuskatzen dituzte. Bazkide batetik hirura bitartean izaten dira.
- Bazkideak:
  - Eskubideak:
    - Kooperatibaren jardueretan parte hartzekoa.
    - Eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioa jasotzekoa.
    - Kooperatiba itzulkinean, soberakina banatzekoa.
  - Betebeharrak:
    - Batzar Nagusiko bilkuretara joatekoa eta bazkidea kide den gainerako organoetan parte hartzekoa.
    - Sozietatearen organoek hartutako erabakiak betetzekoa, baliozkoak badira.
    - Prestakunta-jardueretan parte hartzekoa.
- Motak: Hona hemen batzuk:
  - Lan elkartuko kooperatibak
  - Kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibak
  - Etxebizitza-kooperatibak
  - Nekazaritza-kooperatibak
  - Lurra erkidegoan ustiatzeko kooperatibak
  - Zerbitzu-kooperatibak
  - Itsasoko kooperatibak
  - Garraiolarien kooperatibak
  - Aseguru-kooperatibak
  - Osasun-kooperatibak
  - Irakaskuntza-kooperatibak
  - Kreditu-kooperatibak
  - ...

## ENPRESA

Enpresa [sistema](#) ekonomiko irekia da, ingurunearekin etengabeko harremanetan dagoena: [finantza](#) merkatutik makinak eta bestelako azpiegiturak erosi ([inbertsioak](#)) eta lanerako behar dituen dirua lortzen du mailegatuta. [Lana](#) beharrezko beste baliabide bat da. Lana eta beste [ekoizpen-faktoreak](#) konbinatuz, ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dizkio gizarteari eta horren trukean diru-sarrerak lortzen ditu, finantza-merkatutik lortutako baliabideak ordaindu eta langileak saritzeko erabiliko dituena, faktoreen errentak osatuz.

Errealitate konplexua izanik, enpresa kontzeptu lausoa eta definitzen zaila da. [Sinonimoak](#) izan gabe, enpresa terminoarekin lotu izan dira [lantegi](#), [ustiapen](#) eta [negozio](#) kontzeptuak. [Merkataritza sozietate](#) kontzeptu juridikoa ere enpresaren parekotzat erabili izan da, enpresa kontzeptu zabalagoa bada ere. Definizioaren konplexutasuna historian zehar izan duen bilakaerak eta enpresa aztertzeko ikuspuntuen aniztasunak dakar. Hori guztia dela eta, egungo iritzi orokorraren arabera, enpresa definitzeko termino egokiena [sistema](#) da. Enpresak irizpide ekonomikoei jarraiki funtzionatzen duenez gainera, enpresaren kontzeptuan sistemaren izaera [ekonomikoa](#) nabarmentzen da, sozietate, lantegi eta ustiapen terminoak izaera juridikoa, fisiko eta teknologikoa, hurrenez hurren, kontuan hartzen dituzten moduan<sup>[4]</sup>.

Helburuak eraginkortasunez lortzearen enpresa sistemako elementuak behar bezala koordinatu behar dira, enpresako pertsona eta sail bakoitzaren erantzukizunak eta eskumenak zehaztuz eta [komunikaziorako](#) bide egokiak erabiliz. Labur esanda, enpresak [antolakuntza](#) behar du.

Enpresak [ziurgabetasun](#)-giro batean garatu behar du bere barneko jarduera zein ingurunearekiko harremana. Adibidez, enpresak ez du erabateko zehaztasunez jakiten zenbat ekoiztuko duen eta merkatuak zenbateko [eskaria](#) egingo dion. Ziurgabetasun-giro horretan etengabe informazio jaso, helburu berriak finkatu eta erabakiak hartu behar ditu eta horretarako enpresak [kudeaketa](#) izan behar du.


Antolakuntzarako eta kudeaketarako enpresaren izaera ekonomikoaz gainera beste dimentsioak ere kontuan hartu beharko dira modu bateratuan:

- dimentsio teknologikoa: enpresak burutzen duen jarduerari buruz, hainbat arazo sortzen da zenbat eta nola ekoiztu behar den erabakitzerakoan; berrikuntza ere etengabeko jarduera izan behar da enpresa batean;
- dimentsio juridikoa: bere jarduerarako enpresak erabiliko duen [nortasun juridikoaz](#) gainera, inguruko pertsonekin nolako harreman juridikoak sortzen dituen erabaki beharko du (nolako kontratuak osatu, ...);
- dimentsio soziala: enpresaren baitan diharduten langileen arteko harremanak eta enpresarekiko harremanak nolakoak izan behar diren erabaki behar da, enpresan bakoitzak dituen ardura eta eskubideak zehaztuz.

Guzti horretaz gainera, enpresaren antolakuntzan gizarte-erantzukizuna ere hartu behar da kontuan, [ingurumenaren](#) zainketa, [enplegua](#) eta gizartearen ongizate eta garapena enpresaren esku egoten baitira neurri handi batean.

**MERKATU-KUOTA**

- Definizioa: Salmenta osoaren zer proportzio dagokion.
- Formula



$$\text{Merkatu} - \text{kuota} = \frac{\text{Enpresaren merkatua}}{\text{Merkatu osoa}} \cdot 100$$

**b) Enpresa-hazkunderako zer modu ezagutzen dituzu? Modu horietako zein erabili du Oronak, testu horren arabera?**

- Oronak XURGAPEN BIDEZKO BAT-EGITEA burutu du.
- Teoria orokorra: Enpresaren helburuetako bat da HAZKUNDEA  
 Hasierako dimentsioa dena delakoa izanda ere, enpresaren helburuetako bat izaten da bere bizitzan ekoizpen-ahalmena handituz joatea; hau da, dimentsioa handitzea. Bi modu daude enpresak hazkundera izateko: batetik, barne-hazkundera izanik, eta bestetik, kanpo-hazkundera izanik.
  - BARNE-HAZKUNDEA: Enpresaren ekoizpen-ahalmena handitzea da.
  - KANPO-HAZKUNDEA: Honako hauen bidez lor daiteke: jada badauden enpresak erosiz, kontrolatuz edo haiekin bat eginez; beste enpresa batzuekin lankidetzan arituz, beste merkatu batzuetan sartzeko; edo beste enpresa batzuekin akordioak eginez. Herrialdeko merkatua kanpo-hazkunderako nahikoa ez bada, enpresek nazioartekotzera jotzen dute; hau da, atzerrian hedatzen saiatzen dira.


**Barne-hazkundera (2)**

Enpresak hazkunde-estrategiaren alde egiten duenean, lehenbiziko helburua barne-hazkundera izaten da. Horretarako, ekoizpen-ahalmena handitzea erabaki dezake produktu bera ekoizten jarraituz, edo, bestela, produktu eta zerbitzu gehiago ekoiztea aukeratu dezake, hau da, ekoizpena DIBERTSIFIKATZEA, merkatu berriak lortzeko.


- ESPEZIALIZAZIOA: Marketin-estrategiak jarri beharko ditu martxan, gehiago saltzeko. Hauek izan daitezke horietako estrategia batzuk: prezioa aldatzea, produktuaren edukiontzia aldatzea, produktua erakargarriagoa izateko; produktuaren ezaugarriren



- **JOINT-VENTUREAK:** Bi enpresen edo gehiagoren arteko akordioak dira, non biek kapitala edo beste aktiboren bat jartzen duten. Oro har, herrialde desberdinetako enpresen artean egiten dira, enpresetako batek ondo ezagutzen ez duen herrialde batean jardun nahi duenean. Atzerriko enpresak kapitala eta teknologia jartzen du, eta tokiko bazkideak, berriz, tokiko merkatuari eta merkatu horretan sartzeari buruzko jakintza jartzen du, batez ere.
- **TRUSTAK** edo **KONTZENTRAZIO BERTIKALAK:** Enpresa-multzoak dira, denen artean ekoizpen-prozesuko fase guztiak hartzen dituztenak, kostuak murrizteko eta merkatuan nagusi izateko. Trustaren benetako adibide bat Repsol petrolio-enpresa da, prozesuaren fase guztien gaineko kontrola baitu; petrolio-produktuen esplorazioa, erauzketa, finketa eta salmenta.



- **KARTELAK** edo **KONTZENTRAZIO HORIZONTALAK:** Ekoizten sektore bereko enpresa-elkarteak dira. Merkatuaren gaineko kontrola dute, ia erabateko, eta ados jartzen dira prezioetan eta salmenta-estrategiatan. Kartelen adibide klasikoa LPEE da, lurralde petrolio-esportatzaileen kartela.



- **HOLDINGA:** Enpresak antolatzeko beste modu bat da. Enpresa nagusi batek beste enpresa batzuetako akzioak eta partaidetzak erosten ditu eta enpresa horiek kontrolatzen ditu. Zuzendaritza-estamentu bakarra dute. Holdingen abantaila bat da zenbait sektore kontrolatzen dituztela. Zerga-abantailak edo -eraginkortasuna bilatzeaz gain, kapitalen eraginkortasun handiagoa lor daiteke, sozietate guztien emaitza kontsolidatuak enpresa bakoitzarenak baino hobek badira.

## Nazioartekotzea: multinazionalak (Globalizazioa, Nazioartekotzea)

Gaur egun ez dago herrialde buruaskirik eta, beraz, den-denek trukatu behar dituzte produktuak.

- GLOBALIZAZIOA: Herrialdeen arteko ekonomia-harremanen hedapena, mundu-ekonomia sortzeko adinakoa, non parte hartzen duen ekonomia bakoitza besteen mende dagoen.
- NAZIOARTEKOTZEA: Nazioarteko merkatuetara irekitzeari deritzo. Enpresek dimentsioa handitu behar dute merkatu berrietan jarduteko eta hori lortzeko modu bat nazioartekotzea da.

## 1. Nazioartekotze-prozesua (Motak (3) - Arazo posibleak (7))

- Motak (3): Nazioartekotzeko, enpresek zenbait estrategiaren artean aukeratu dezakete:
  - NAZIOARTEKOTZE MULTIDOMESTIKOKO ESTRATEGIA:
    - Jarduten duen herrialde guztietan antolaketa deszentralizatzen du. Hau da, enpresak antolaketa egokitzen du filialak kokatuta dauden herrialde bakoitzerako, tokian tokiko premiak kontuan hartuta.
    - Sarritan, bertako langileak kontrolatzen dira enpresa kudeatzeko, eta filialeko zuzendariak nolabait independenteak dira egoitza zentraleko zuzendariekiko.
    - Jabetza bera duten enpresa nazionalek osatutako multzoa da.
  - NAZIOARTEKOTZE GLOBALA:
    - Jarduten duen herrialde guztietarako baliabide globalak zentralizatuz saiatzen da enpresa lehia-abantaila bat lortzen, eta administrazio osoa enpresaren jatorrizko herrialdetik egiten da. Gehinetan, filialen kudeatzaileak eta zuzendariak enpresa nagusiaren jatorrizko herrialdekoak izaten dira.
    - Filialen independentzia-maila eta strategiak edo produktu berriak proposatzeko ahalmena txikia da.
    - Produktu eta marka guztiak berdinak dira herrialde guztietarako.
    - Filialak banaketa-kanal hutsak izaten dira.
  - NAZIOARTEKOTZE TRANSNAZIONALA:
    - Ekoizpen- eta salmenta-estrategia guztiak erabiltzen dira, nondik datozen kontuan hartu gabe.
    - Filial bakoitzari egokitu dakioko eginkizun garrantzitsuren bat, merkataritza-esparruan, berrikuntzan edo beste edozein esparrutan, eta jarduten den herrialde bakoitzaren abantailak eta premiak baliatu, eskala-ekonomiak lortzeko eta, beraz, kostuak murrizteko.

- Eredu honetan, aurreko bi estrategiak uztartzen dira nolabait, filial oro bihur daiteke-eta enpresa koordinatzaile globala une batean edo bestean.

Beraz, enpresa multidomestikoan filialen jarduna independentea da; globalean, enpresa nagusiarekiko mendekoak dira; eta transnazionalean, modu independentean jarduten dute.

- Arazo posibleak (7):
  - Jardun behar den merkatuari buruzko informazio falta.
  - Enpresan langile kualifikatuak ez izatea.
  - Enpresako langileek aldaketekiko mesfidantza izatea.
  - Alde kultural eta psikologikoak. Ziurrenik, ingurune kulturala ez da jatorrizko enpresak jarduten duen ingurune berdina.
  - Kontsumitzaile berrien gustuak egungo kontsumitzaileen gustuekin bat ez etortzea.
  - Negozio-jardunbide desberdinak; hornitzaileekin, erakundeekin, bezeroekin, kontsumitzaileekin, langileekin eta abarrekin jarduteko modu desberdina.
  - Beste legedi batera egokitu behar izatea.

